

tik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

Diru-laguntza itzultzea

38/2003 Legearen II. tituluan eta bere garapen arauterian ezarritako kasuetako bat gertatzen denean, udal diruzaintzari itzuli beharko zaio jasotako laguntza, bai eta sortutako berandutze interesak ere, alegia, diru laguntza ordaindu denetik itzulketa egitea erabakitzen den egunera arte sortutakoak; eta hori guztia, titulu berean finkatutako prozedurari jarraiki.

Arau hausteak eta zehapenak

Hona hemen arau hausteen eta zehapenen araubidea ezartzen duten xedapenak: batetik, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Titulua, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, bai eta bakoitzaren garapen arauak eta legeria aplikagarria ere.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamaseigarren egun baliodunear.

Sopelanan, 2010eko irailaren 10ak.—Alkatea

(II-7102)

IRAGARKIA

Sopelanako Udalak 2010ko ekainaren 24an hasiera batez onartu zuen Euskera ikasteko diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza. Eta ondoren, akordioa jendaurrean jarrita, ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu epe barruan; beraz, behin betiko onartutzat jotzen da, hala ezartzen baita Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluko c) idatz zatian –apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketa berrian–. Horiek horrela, adierazten da aipatutako ordenantza indarrean sartuko dela Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunean, betiere epe hori testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuta. Ordenantza behin betiko onartzearen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2 hilabeteko epearen barruan.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZA

1. artikulua.—Xedea

Ordenantza honen xedea Sopelanako Udalak herritarrek euskara ikasteko diru-laguntzak izan ditzaten politika erabiltzeko ahalbidea irekitzea da, eta horrela adin, matrikulazio eta bertaratze baldintzak - maila gainditzea, zenbait kasutan -, betetzen dituen udalerriko edozein herritar laguntza horietaz baliatu ahal izango da, aurrerago zehaztuko diren mugekin.

2. artikulua.—Erabilera esparrua

Ordenantza honen barne, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten Sopelanako herritar guztiak sartzen dira.

3. artikulua.—Diru laguntzaren kopurua

3.1. Ordenantza honek araupetzen dituen diru-laguntzak era honetakoak izango dira:

3.1.1. Barnetegi ofizialetara edo homologatuera joatea: matrikula eta irakaskuntza kostuaren %50, egonaldia alde batera utzita.

corrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda.

Reintegro de la Subvención

Procederá el reintegro a las Arcas Municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos y de acuerdo con el procedimiento establecido en el Título II de la Ley 38/2003, así como en su respectiva normativa de desarrollo.

Infracciones y sanciones

El régimen de infracciones y sanciones, será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como en sus respectivas normas de desarrollo y demás legislación que resulte aplicable.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el decimosexto día hábil siguiente al de su publicación íntegra en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Sopelana, a 10 de septiembre de 2010.—El Alcalde

(II-7102)

ANUNCIO

No habiéndose presentado reclamación alguna dentro del plazo de exposición al público del acuerdo de aprobación inicial de fecha 24 de junio de 2010 de la Ordenanza municipal de Ayudas económicas para el aprendizaje de Euskera del Ayuntamiento de Sopelana dicho acuerdo queda elevado a definitivo de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49, letra c), de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la nueva redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, significando que esta Ordenanza entrará en vigor al día siguiente al en que termine el plazo previsto en el Artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, contado desde la publicación de su texto completo en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Contra la aprobación definitiva de la Ordenanza podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de 2 meses contados a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio.

ORDENANZA MUNICIPAL DE AYUDAS ECONOMICAS PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKARA

Artículo 1.—Objeto

La presente Ordenanza tiene por objeto permitir al Ayuntamiento de Sopelana aplicar una política de ayuda a la euskaldunización de los y las vecinas del municipio, permitiendo que pueda beneficiarse de ella cualquier vecino o vecina del municipio o equiparable, que reúna los requisitos de edad, matriculación y asistencia –o en su caso, de superación de nivel–, con los límites que más adelante se señalan.

Artículo 2.—Ambito de aplicación

La presente Ordenanza será de aplicación a vecinos y vecinas del municipio de Sopelana que cumplan las condiciones que se establecen en el Artículo 4.

Artículo 3.—Alcance de la ayuda económica

3.1. Las ayudas económicas reguladas en la presente Ordenanza se establecen como siguen:

3.1.1. Asistencia a barnetegis oficiales u homologados: 50% del coste de la matriculación y enseñanza, exceptuando los gastos de estancia.

3.1.2. Zentro ofizial edo homologatueta euskara ikastaro estandarretara joatea.

Udalari eskaera egiten zaion ikasturteko matrikularen eta irakaskuntza kostuaren %50.

3.2. Beste diru-laguntza batzuk izatekotan (HABE...), ezin da gainfinantzaketarik egon, hau da, diruz lagundutako guztizko kopurua ez da matrikularen zenbateko osoa baino handiagoa izango. Hortaz, dagokion portzentaia ezarriko zaion oinarria lortuko da matrikulazio eta irakaskuntza kostuei beste erakunde batzuk emandako diru-laguntzen zenbaketa orokorra kenduta. Hori horrela izan dadin, Udalak diru-laguntzak emango ditu HABEk dagokien euskara-mailak gainditzen dituzten ikasleentzako diru-laguntzen esleipena argitaratu ondoren.

4. artikulua.—Diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintzak

1. Ikasketak egiteko aldi osoan Sopelanako udalerrian errol-datuta egotea ikasketak iraun bitartean eta egoera hau amaierara arte mantentzea, eta, gutxienez ere, 16 urte beteta izatea.

2. Sopelanako Udal Euskaltegi matrikulatuta ez egotea.

3. Sopelanako Udal Euskaltegiak eskainitako ikastaroetan parte hartzeko ezintasuna izatea, arrazoi ezberdinak medio:

— Matrikulatu nahi den ikastaroaren edo mailaren eskaintza eza.

— Matrikulatu ahal den ordutegian talderik ez egotea.

— Lana zein ikasketak beste udalerrri batean izanagatik, Sopelanako Udal Euskaltegiak eskainitako ikastaroetara joateko ezintasuna.

4. Interesatuak aurrez eskaera egin izana.

5. Matrikularen prezioa edo ezarritako ikastaroaren prezioa aurrez ordaintzea, jarritako epean.

6. Diru-laguntza eskatu den maila edo mailetan emandako eskola ordu guztien %80 jasotzea gutxienez ere, edo matrikulatutako maila gainditzea.

Horretarako, ez dira kontuan izango behar bezala justifikatutako hutsegiteak, esaterako, gaixotasun, mediku kontsulta, edo ezinbesteko eginkizunak bete beharra edo agindutako azterketetara joan beharra.

7. Sopelanako Udalari ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publikoetan egunean egotea.

8. Diruz laguntzeko eskatzen den maila, eskaera egin den urte berean edo aurrekoan ordaindu eta hasi izana.

9. Zentroko ikasle bezala baja ez hartzea, diru-laguntza eskatzen den mailak edo mailek dirauten bitartean.

5. artikulua.—Aurkeztu beharreko agiriak

Hona hemen euskara ikasteagatik diru-laguntza eskatzen dutenek aurkeztu beharreko agiriak:

a) Udalak diru-laguntzen eskaera egiteko espresuki prestatutako idazkia, behar bezala beteta.

b) NANaren fotokopia.

c) Euskaltegiak egindako ziurtagiria. Ziurtagiria ikasturtea amaitu eta gero aurkeztu beharko da eta honakoak agertu beharko dira bere baitan:

— Ikasleak egindako eta lortutako maila/k

— Asistentzia. Zentroak diru-laguntzaren onuradunari dagokion mailan emandako eskola orduak eta onuradunak berak jasotako eskola orduak adieraziko dira.

— Hala balegokio, euskaltegiak eskatzaileari emandako diru-laguntzen ziurtagiria.

d) Eskatzaileak beste erakunde batek euskara ikasteagatik bestelako diru-laguntzarik eman ez diola adierazten duen zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du.

3.1.2. Asistencia a cursos estandar de aprendizaje del euskara en centros oficiales u homologados.

Para el año en el que se formule la petición ante el Ayuntamiento, el 50% del coste de matriculación y enseñanza.

3.2. La concesión de cualquiera de estas ayudas económicas en ningún caso podrá dar lugar a una sobrefinanciación en el caso de existir otras subvenciones (HABE...), es decir, el cómputo de todas las subvenciones otorgadas por este ayuntamiento u otros organismos no podrá superar el precio total de la matrícula. Así, la base a la cual se aplicará el porcentaje correspondiente, se obtendrá restando al coste de matriculación y enseñanza el cómputo total de subvenciones recibidas de otros organismos por este concepto. A tal fin, el Ayuntamiento dará las subvenciones después de que HABE haga pública la asignación de subvenciones a aquellos y aquellas estudiantes que hayan superado las pruebas de nivel correspondientes.

Artículo 4.—Requisitos para recibir las ayudas

1. Estar empadronado/a en el municipio de Sopelana durante la realización de los estudios y mantener dicha situación hasta su finalización, y tener al menos 16 años cumplidos.

2. No estar matriculado/a en el Euskaltegi Municipal de Sopelana.

3. No tener posibilidad de acudir a los cursos ofrecidos por el euskaltegi Municipal de Sopelana, por distintas razones:

— Carencia del curso o nivel en el que se quiera matricular.

— La inexistencia de grupo en el horario deseado.

— No poder acudir a los cursos ofertados por el Euskaltegi Municipal por motivo de trabajo o estudios.

4. Solicitud previa por parte de la persona interesada.

5. Abono previo por la persona interesada del precio de la matrícula correspondiente en el plazo reglamentario.

6. Asistencia, al menos, del 80% del total de horas lectivas impartidas en el nivel o niveles para los que se solicita ayuda económica, o, en su defecto, haber superado el nivel o niveles para los que se solicita ayuda económica.

A tales efectos, no serán computadas como faltas de asistencia las debidamente justificadas por enfermedad, consultas médicas, cumplimiento de deberes ineludibles o asistencia a exámenes reglados.

7. Estar al corriente de pago de cuantos impuestos, tasas y precios públicos deba satisfacer al Ayuntamiento de Sopelana.

8. Haber iniciado el curso o cursillo y abonado el pago de su matrícula correspondiente durante el ejercicio económico en el que se solicita la ayuda, o, como, máximo, en el anterior.

9. No causar baja en el curso matriculado, como alumno/a del centro, respecto al calendario del nivel o niveles para los que se solicita ayuda económica.

Artículo 5.—Documentación a presentar

Las personas solicitantes de ayuda económica por aprendizaje del euskara, deberán presentar la siguiente documentación:

a) Solicitud de la persona interesada, cumplimentada en impreso preparado al efecto.

b) Fotocopia del DNI

c) Certificado del euskaltegi, que se deberá presentar al término del curso, en el que conste:

— Nivel o niveles realizados y superación o no de cada uno de ellos.

— Asistencia, especificando el número de horas impartidas por el centro y el número de horas recibido por el alumno o la alumna.

— Certificación, en su caso, de las ayudas otorgadas por el euskaltegi a dicho/a alumno/a.

d) Declaración jurada, en su caso, de las subvenciones solicitadas, y de las obtenidas de otras administraciones o entidades.

e) Matrikularen ordainagaria.

f) Udak Euskalategiak luzatutako agiria, ikaslea bertan matrikulatzeko ezintasunaren berri ematen duena (ordutegi zein maila arazoak direla eta Udak Euskalategian matrikulatu ezin diren ikasleek aurkeztu beharrekoa).

g) Enpresak zein ikasketa-zentroak luzatutako agiria, ikaslea beste udalerrri batean lanean zein ikasten dabilela egiaztatzen duena (Sopelanatik kanpo lan egiten zein ikasten ibiltzeagatik Udak Euskalategian matrikulatu ezin diren ikasleek aurkeztu beharrekoa).

6. artikulua.—*Jardunbidea eta kudeaketa arauak*

1. Eskaerak ikastaroa egiten den urteko uztailaren 1etik urriaren 31ra bitartean aurkeztuko dira eta diru-laguntzak hurrengo urteko urtarril eta otsailen zehar emango dira, eskaera guztiak banan-banan aztertutakoan.

2. Maila bakoitzari dagozkion azterketak bukatuta, Zentroaren Zuzendaritzak diru-laguntzen eskatzaileei dagozkien bertaratze, aprobetxamendu (bertaratzea eta ikasketa maila) eta jasotako bekei (hala dagokionean) buruzko txostena luzatuko du. Informe hau, interesatuek aurrez egindako eskaera eta adierazpenekin batera, Kulturako Informazio Batzordeak baloratuko ditu eta ebazpen proposamena egingo du aipatu dokumentazioan oinarrituta eta/edo bidezko eman ditzakeen xehetasun gehiago eskatu ahal izango ditu aurkeztutakoak gutxiegi izatekotan.

3. Ordenantza honetan aurreikusitako diru-laguntzaren bat eskuratzeak ez dakar berarekin ikaskurteetan, besterik gabe, berriro jasotzea. Diru-laguntzak jaso izanez gero, ikasturte akademiko bakoitzean aurkeztu beharko dira eskaera eta eskatutako agiriak, eta ikasturte horretarako baino ez dute balio izango.

7. artikulua.—*Aurrekontu kontsignazioa eta diru-laguntzen ordainketa*

Ordenantza honetan aurreikusitako diru-laguntzei dagokienez, udal aurrekontuan beharrezko diren diru-izendapenak bilduko dira. Kulturako

Eskatutako diru-laguntzen zenbatekoa aurrekontu kontsignazioa baino handiago izanez gero, Udalak euskara ikasteagatik emango dituen diru-laguntzetarako partida baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean hainbanatuko du.

Euskara ikasteagatik emango diren diru-laguntzak urtean behin baino ez dira jasoko, epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak banan-banan aztertu ondoren.

Ezin da gainfinantzaketa gertatu beste diru-laguntza batzuk izatekotan, hots, diruz lagundutako guztizko kopurua ez da matrikularen zenbateko osoa baino handiagoa izango.

8. artikulua.—*Diru-laguntza itzultzea*

38/2003 Legearen II. tituluan eta bere garapen arauterian ezarritako kasuetako bat gertatzen denean, udal diruzaintzari itzuli beharko zaio jasotako laguntza, bai eta sortutako berandutze interesak ere, alegia, diru laguntza ordaindu denetik itzulketa egitea erabakitzen den egunera arte sortutakoak; eta hori guztia, titulu berean finkatutako prozedurari jarraiki.

9. artikulua.—*Arau-haustea eta zehapenak*

Hona hemen arau hausteen eta zehapenen araubidea ezartzen duten xedapenak: batetik, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Titulua, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, bai eta bakoitzaren garapen arauak eta legeria aplikagarria ere.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamaseigarren egun baliodunear.

Sopelana, 2010eko irailaren 10ak.—Alkatea

(II-7103)

e) Justificante del abono de la matrícula.

f) Escrito extendido por el Euskalategi Municipal, en el que se informe de la imposibilidad de matricularse en su centro (escrito a presentar por los y las alumnas que por motivo de horarios o niveles no puedan matricularse en el Euskalategi Municipal).

g) Escrito extendido por la empresa o centro de estudios en el que se informe de que el o la alumna se encuentra trabajando o estudiando en otro municipio (escrito a presentar por los y las alumnas que se encuentren trabajando o estudiando fuera de Sopelana).

Artículo 6.—*Procedimiento y normas de gestión*

1. Las solicitudes se presentarán en el periodo comprendido entre el 1 de julio y el 31 de octubre del año en curso, y su abono se efectuará a lo largo de los meses de enero y febrero del año siguiente, tras haber estudiado todas las solicitudes.

2. Una vez concluidos los exámenes de los niveles correspondientes, por la Dirección del Centro se extenderá un informe relativo a la asistencia, aprovechamiento (asistencia y resultados académicos) y becas —concedidas por el centro, si las hubiera disfrutado— de las personas solicitantes de ayuda económica. Dicho informe, junto con las solicitudes y declaraciones previas de los y las interesadas, serán valorados por la Comisión Informativa de Cultura, la cual elevará propuesta de resolución en base a la documentación referida, y/o, en el caso de información insuficiente, requerirá la ampliación de datos que considere oportuna.

3. La obtención de alguna de las ayudas previstas en esta Ordenanza no implica su automática renovación para cursos sucesivos; sino que la solicitud y documentación requeridas deben presentarse cada curso académico y sólo durante el mismo tendrán validez.

Artículo 7.—*Consignación presupuestaria y abono de ayudas económicas*

En relación a las ayudas económicas previstas en la presente Ordenanza, el Presupuesto Municipal contendrá las dotaciones presupuestarias correspondientes.

Si el importe de las ayudas económicas solicitadas supera la consignación presupuestaria, se procederá a un reparto proporcional de la partida destinada al efecto entre las solicitudes que cumplan los requisitos.

El abono de las cantidades que, en su caso, sean aprobadas se efectuará una vez al año, tras valorar y resolver todas y cada una de las solicitudes presentadas en el plazo que se establezca.

La concesión de esta ayuda económica no podrá dar lugar a una sobrefinanciación en el caso de existir otras subvenciones, es decir, el cómputo de todas las subvenciones otorgadas por este ayuntamiento u otros organismos por este concepto no podrá superar el precio total de la matrícula.

Artículo 8.—*Reintegro de la Subvención*

Procederá el reintegro a las Arcas Municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos y de acuerdo con el procedimiento establecido en el Título II de la Ley 38/2003, así como en su respectiva normativa de desarrollo.

Artículo 9.—*Infracciones y Sanciones*

El régimen de infracciones y sanciones, será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como en sus respectivas normas de desarrollo y demás legislación que resulte aplicable.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el decimosexto día hábil siguiente al de su publicación íntegra en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Sopelana, a 10 de septiembre de 2010.—El Alcalde

(II-7103)